

2019ko Egutegia Aspanovas-en alde

Gure egoitzetako nagusiek, politika, gizarte, kirol eta kultura eremuetako pertsona nabarmenekin batera, 2019ko Egutegi solidarioa egin dute, pertsona nagusiek gizartean duten balioa erakusteko. Egutegiak helburutzat hartzen du nagusiak euskal gizarteko eragile aktiboak bezala agerian jartzea.

Batutako diru kopuru osoa (**Minbizia duten Bizkaiko umeen Gurasoen Elkarte**) **ASPANOVAS** elkartera joango da. Bere helburuak minbiziak jota dauden umeen bizitzaren kalitatea hobetzea da, ahalegin guztiak eguneroko bizitzako alderdi guztietan normalizazio osorako bideratuz. Egutegiko alea lortu nahi dutenek Kirikiño eta Barrika Barri egoitzetan eta Aspanovas (Antonio Eguiluz Medikua, 22 Bilbao) egoitzan topatuko duzue, 5 euroko prezioan. Egutegian parte hartu duten pertsona ezagunak ondokoak izan dira: **Juan Mari Aburto** Bilboko alkatea, **Itziar Lazcano** aktorea, **Azul Tejerina**, **Juan Carlos Otaola**, **Ana Urrutia**, **Iñaki López**, eta **Joseba Sorozabal** kazetariak, **Kepa Junkera**, musikagilea, **Jose Luis Korta**, arraunlari ohia eta arraunlariaren entrenatzailea, **Imanol Aguirre**, pelotaria, **Jose Angel Iribar**, Athletic-eko futbolari ohia eta **Herri Torrontegui**, motorista. Gaizka Eubak, Barrika Barri eta Kirikiño Egoitzetako giza erantzuleak, egutegian parte hartu nahi duten pertsona nabarmen guztien laguntza eta denbora eskertu ditu. "Parte

hartzaile guztiak lehengo momentutik baietza eman zioten egindako proposamenari. Gure esker onik beroena helarazi nahi diegu, beraien denbora eta ardurarekin **ASPANOVAS** elkarrekin garatzen dituen ekimenak lagunduko dituztelako eta aldi berean, pertsona nagusiak agerian jarriko dituztelako gure gizartean duten zeregin aktiboa aldarrikatuz." Kirikiño eta Barrika Barri egoitzetatik egutegi hau egiteko laguntza eman duten beste talde batzuei ere eskerrak helarazi nahi dizkiegu. Ondokoak izan dira laguntzaileak: INCOBI, Santutxu y +, Zurekin Bus, Sospelako Foto Xabier eta Docor Comunicación. "Egutegi honen bitartez, pertsona nagusien ametsak, indarrak, eta unez unez gozatzeko gogoak gizartera eraman nahi ditugu, askotan ahulak, menpekoak, asperatuak, geldoak eta ulertzen ez duten pertsonak direla pentsatzen dugulako. Gure erronka bizitza bizitzea da, adina, menpekotasuna, eta bizi garen lekua kontuan hartu gabe, eta inguruan dugun gizartearen parte aktiboa izaten jarraitzea" azpimarratzen du Gaizka Eubak. Protagonistek ikas-teko kezka, moldatzeko gaitasuna, beste taldeekiko konpromisoak bidaltzen dizkigute eta hain garrantzitsuak diren baloreak, hala nola, laguntasuna, familia, maitasuna, alaitasuna, biziaren minutu guztien onura ateratzea eta menpekotasuna eta zahartzarora normalizatzea erakusten dizkigute.



Gure egoiliarak Bilboko alkatearekin



Gure egoiliarak ETBko "Eguraldia" programan



Bide Nagusia 7
Barrika 48650
Telf. 94 677 44 77
Fax. 94 677 44 32

barrikabarri@euskoges.com



Torre Gorostizaga 2 y 4 Bil-
bao 48004
Telf. 94 412 74 00
Fax. 94 411 08 58

kirikino@euskoges.com



Iritzia: Nagusiak gizartearen zutabea

Gaur egun ia 700 milioi pertsonak 60 urte baino gehiago dute. 2050 urterako 60 urtetik gorako pertsonak 2000 milioi izango dira, hau da, munduko biztanleriaren %20a baino gehiago. Igoera hau handiena eta azkarrena izango da garapen munduan. Ez da ahaztu behar nagusiek funtsezko eran, gizartearen funtzionamendu onari laguntzen jarraitu dezakete.

Adin nagusiko pertsonak erabakiak hartzeko gaitasuna izan behar dute, bai eta egiteko eta izateko gaitasuna ere, aurretik jakintzat ematen zaien geldotasunaren aurrean pertsona aktiboak bihurtuz eta honela menpekotasun eta zahartasunaren ospe txarrak apurtuz.

Pertsona nagusiak ahalduntzea bultzatu behar da, buruko trabak apurtzen lagunduz, egiten dutenari zentzua emanez, instituzionalizazioa, narriadura fisikoa, menpekotasuna, eta gaitasun kognitiboaren galera, bizitza normalizatua eramateko arrazoiak ez direlako ikus dezaten. Adin nagusiko pertsonak ahalduntzeak euren bizitza-

ren kalitatea, autonomia maila eta auto estimazioa hobetzen ditu, eta guzti hauek zahartze osasungarria eta arrakastatsua eramateko garrantzizko alderdiak dira.

Askotan pentsatzen da egoitzetan nagusiak ezin direla autonomoak izan eta ezin dutela erabakirik hartu, baina badakigu parte hartzea eta gizartean sartzea oinarritzko atalak direla egoitza zoriona



edukitzeko eta horregatik pertsonak bezala entzuten eta tratatzen ditugu.

Nagusiek jardueretan parte hartu nahi dute, euren arropa edo jan nahi duten janaria aukeratu, bere gaitasun fisikoaren arabera.

Zeintzuk diren euren gogoak eta zaletasunak entzun behar ditugu eta erakartzea aktiboak

egon daitezten. Haien etxean luzapena izango balitz bezala da gure egoitzetako filosofia.

Beraietan, behar dituzten beharrez eta zainketa guztiak, hala nola, elikadura, medikazioa eta abar edukitzeaz gainera, harremanak, zaletasunak eta gogoak garatu ahal izango dituzte.

Foru Guztion Artean, RSEn finkatutako foroa

Bizkaiko hiriburuan 50 enpresari baino gehiago berriro elkartu dira "Guztionez" Foroaren gosari berrian, Enpresaren Gizarte Erantzukizunaren balioa eztabaidatu eta ezagutzeko. 2015 urtean eraturako irabazi asmorik gabeko erakundea da, honen helburua Enpresaren Gizarte Erantzukizuna egitearen modu berria bultzatu eta laguntzeko kezka duten euskal enpresak biltzea delarik. Aukera honetan, FEKOOR, Gaude Elkarte eta Iberdrola Dorrea izan dira sarituta, enpresaren gizarte erantzukizunarekin hartutako konpromisoagatik.





AZPIMARRATXEKOAK



Gure nagusiak aktibo mantentzeko eta ondo pasatzeko jardura fisikoko programa batzuk aurrera eramaten ditugu

Gure egoiliarra Trinidad Moro, gurekin etorri zen komunikabide batzuetara elkarrizketa egitera



Gaude Elkartearekin zenbait topaketa egiten ditugu, hala nola, sukaldaritza tailerrak, taldeen arteko harremanak bultzatzeko



Hilean zenbait aldiz txangoak egiten ditugu. Irudian gure egoiliarrak Bilboko Guggenheim Museoa bisita egiten



Gure egoitzetako instalazioak aprobetxatzen ditugu kanpoko jarduerak egiteko



Nagusien zerbitzura



Bi egoiliarrek Joseba Sorozabalekin hitz egiten dute Teledibulbaoko platoon. Irudia Egutegian agertzen da




Eguberriko bazkaria Kirikiñon. Jaietan zehar, egoiliar eta familiekin batera asko gozatu dugu



Barrika Barrin ere gabon jaiak ospatu ditugu gure egongela handian era askotako jarduerak eginez



Aspanovas-en aldeko azoka solidarioa martxan jarri genuen, RSEko gure arrazoi solidarioa delako



Irudian, egoiliar batzuk Itziar Lazcanorekin agertzen dira Bilbon Egutegi Solidarioarako

